	B.3 Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	B.3 Para establecimientos industriales o comerciales. Por cada metro lineal o fracción de calzada	128,00	127,10
C)	TOKI ERRESERBA	RESERVA ESPACIO		
	C.1 Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	C.1 Reserva de espacio sin aprovechamiento de acera, por cada metro lineal o fracción.	63,95	63,50
	C.2 Noizbehinkako beharrak eraginda, erabilera desberdinetarako tokia erreserbatzea metro linealeko eta erreserba eguneko	C.2 Reserva de espacio para uso diverso, provocado por necesidades ocasionales, por metro lineal y día que alcance la reserva	1,45	1,45
D)	Plaka berria	Nueva placa		30,00

2.2.3. Azokak

Aplikazio arauetan Abastos plazako merkatuaz hitz egiten du. Gaur egun ez dagoenez, puntu hori kentzea diktaminatzen da.

Bestalde, Euskal Herria Plaza, Berdura plaza eta Zerkausiko merkatuei dagokienez, dagokion tasa hiruhilekoaren lehenengo hilabeteko lehen hamabostaldian kobratuko dela jartzen du, baina kudeaketa aldetik hori zaila denez, kentzea diktaminatzen da.

Gaur egun honela dago:

“Euskal Herria plazako merkatuari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira eta hiruhilekoaren lehenengo hilabeteko lehen hamabostaldian ordainduko zaizkio Udalari, murrizketa eta aitzakiarik gabe, adierazitako kontu korrontearen bidez.”

Honela geratzea diktaminatzen da:

“Euskal Herria plazako merkatuari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira eta adierazitako kontu korrontearen bidez ordainduko zaio Udalari.”

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei. Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

2.2.3. Mercados

Aplikazio arauetan Abastos plazako merkatuaz hitz egiten du. Gaur egun ez dagoenez, puntu hori kentzea diktaminatzen da.

Bestalde, Euskal Herria Plaza, Berdura plaza eta Zerkausiko merkatuei dagokienez, dagokion tasa hiruhilekoaren lehenengo hilabeteko lehen hamabostaldian kobratuko dela jartzen du, baina kudeaketa aldetik hori zaila denez, kentzea diktaminatzen da.

Gaur egun honela dago:

“Euskal Herria plazako merkatuari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira eta hiruhilekoaren lehenengo hilabeteko lehen hamabostaldian ordainduko zaizkio Udalari, murrizketa eta aitzakiarik gabe, adierazitako kontu korrontearen bidez.”

Honela geratzea diktaminatzen da:

“Euskal Herria plazako merkatuari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira eta adierazitako kontu korrontearen bidez ordainduko zaio Udalari.”

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.

El anexo queda de la siguiente manera:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.10.27

	MERKATUAK	MERCADOS	EUROAK 2015	EUROAK 2016
1.	EUSKAL HERRIA PLAZAKO MERKATUA	MERCADO PLAZA EUSKAL HERRIA		
	2.1 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta eguneko	2.1 Puestos en zona descubierta por m ² y día	1,40	1,40
	2.2 Plazako arkupetako saltokiak m ² -ko eta eguneko	2.2 Puestos en la zona de los arcos de la plaza, por m ² y día	2,65	2,65
	2.3 Nekazaritza makinatarako saltokia eguneko	2.3 Puestos para maquinaria agrícola, por puesto y día	7,20	7,15
	2.4 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta hiruhilabeteko	2.4 Puestos en zona descubierta por m ² y trimestre	15,50	15,40
	2.5 Plazako arkupetako saltokiak m ² -ko eta hiruhilabeteko	2.5 Puestos en la zona de los arcos de la plaza, por m ² y trimestre	29,30	29,10
2.	BERDURA PLAZAKO MERKATUA	MERCADO PLAZA VERDURA		
	3.1 Barazki salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	3.1 Puestos de venta de hortalizas, por m ² y día	1,60	1,60
	3.2 Lore salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	3.2 Puestos de venta de flores, por m ² y día	1,50	1,50
3.	ZERKAUSIKO MERKATUA	MERCADO DEL TINGLADO		
	4.1 Gazta, arrautza, hegazti, barazki eta beste batzuk saltzeko industri postuak m ² -ko eta eguneko	4.1 Puesto industrial, dedicado a la venta de quesos huevos, aves, hortalizas y otros, por m ² y día	3,25	3,25
	4.2 Tolosa inguruko baseritarren nekazaritza ekoizpenen salmenta txikia, tasak ordaintzetik salbuetsirik dago. Salbuespen honekiko irizpidea Udalaren esku dago.	4.2 La venta reducida de la producción agrícola de los baseritarras del entorno Tolosano, queda exenta de pago de las Tasas. Será competencia municipal la consideración de esta exacción.		
	4.3 Mahaien alokera, bakoitzeko eta eguneko	4.3 Alquiler de mesas, por unidad y día	0,55	0,55
4.	ATADI KALEKO MERKATUA	MERCADO DE ATADI KALEA		
	4.1 Zuhaitzak eta / edo zuhaixkak salduz bi astez behin etortzen direnak (larunbatetan) eta garaian (abendutik martxora)	4.1 Puesto dedicado a la venta de árboles y / o arbustos, de asistencia 1 día por quincena (sábados), y por temporada (de diciembre a marzo)	32,50	32,30
	4.2 Zuhaitzak eta / edo zuhaixkak salduz bi astetan bitan etortzen direnak (astelehena eta larunbatetan) eta garaian (abendutik martxora)	4.1 Puesto dedicado a la venta de árboles y / o arbustos, de asistencia 2 días por quincena (lunes y sábados), y por temporada (de diciembre a marzo)	64,55	64,10

2.2.5. Udaleko bide publikoetako lurzoru, lur gain eta lur azpiaren ea gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezi

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

2.2.5. Utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales y demás terreno de dominio público

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA	UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES Y DEMAS TERRENOS DE DOMINIO PUBLICO	EUROAK 2015	EUROAK 2016
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta automatikoko txanpon aparatuak, m2 edo zatikia hileko	Aparatos de venta automática de bienes o servicios, accionadas con monedas. Por m ² o fracción y mes o fracción	13,80	13,70
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan : mahaiak, aulkiak, upelak edo antzekoak, m2 edo zatikia: Tarifa 1: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2,3 Ekainaren 15tik irailaren 15era Tarifa 2: 2.1. Urtebetekoa 2.2. Maiatzetik urrira 2,3 Ekainaren 15tik irailaren 15era	Terrazas e instalaciones complementarias en la vía pública: mesas,sillas, barriles o similares, por m ² o fracción: Tarifa 1: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre Tarifa 2: 2.1. Anual 2.2. Mayo a octubre 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre	100,00 80,00 50,00	99,30 79,45 49,65
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko edukinontziak, bakoitzeko eta eguneko	Contenedores para depósito de escombros y materiales. Por unidad y día	4,80	4,75
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. M2 eta eguneko	Por escombros, tierras, arenas, hormigones etc. Por m2 y día	2,05	2,05
5. Lokal edo establezimendu barrutik zuzenean bide publikora egiten den edozein artikuluren salmentarekin egindako lurzoru aprobetxamendua, bide publikoa negozioaren zati osagarri bezala erabiliz, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	Por aprovechamientos del suelo con la venta de cualquier clase de artículos desde el interior de locales o establecimientos directamente a la vía pública utilizando ésta como parte integrante del negocio. Por m ² o fracción y mes o fracción	5,85	5,80
6. Kutxazain automatikoa, bakoitzeko eta urteko	Cajero automático, por unidad al año	360,55	358,05
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulo, enbor edo antzekoekin, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	Por ocupación de vía pública con camión grúa, elevadores de obra, módulos de obra, troncos y similares. Por m ² o fracción y mes o fracción	7,40	7,35
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, Udalak zehaztuko du prezioaren zenbatekoa, xehetasun eta berezitasun guztiak kontuan izanda.	En los casos no incluidos en los anteriores, el Ayuntamiento determinará el importe del precio teniendo en cuenta las particularidades y características que concurren.		
9. Hilerria	Cementerio:		
Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean	Transmisiones a título hereditario entre conyuges, padres a hijos, de panteones	128,00	127,10
Gainerako transmisioak	Otras transmisiones	1.173,35	1.165,15
10. Kioskoak eta kabinak:	Quioscos y cabinas:		
10.1. ONCEren kabinak eta argazkiak ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko	9.1 Cabinas de la O.N.C.E y obtención de fotografías. Por unidad y año	515,20	511,60
10.2. Prentsa kioskoak. Bakoitzak hileko	9.2 Quioscos de prensa. Por unidad y mes	86,80	86,20

2.2.7. Ferialekua eta Zerkausi

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauek izango dira tarifak:

2.2.7. Ferial -Zerkausi

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

	FERIALEKUA eta ZERKAUSI	FERIAL y ZERKAUSI	EUROAK 2015	EUROAK 2016
.	Egun bateko erabilera	Utilización 1 día	564,30	560,35
2.	Bigarren erabilera eguna %75	El 2º día de utilización 75 %	423,50	420,55
3.	Hirugarren erabilera eguna %50	El 3º día de utilización 50 %	282,40	280,40
4.	Laugarren erabilera eguna %25	El 4º día de utilización 25 %	141,05	140,05
5.	Laugarren erabilera egunetik gora, eguneko	A partir del 4º día, por cada día de utilización	100,00	99,30
6.	Karga-deskarga eta muntaketarako erabilitako eguna	Por día de utilización para carga, descarga y montaje exclusivamente	49,80	49,45
7.	Stand-en akura, bakoitzeko	Alquiler por stand colocado	10,10	10,05
8.	Gastuak:	Gastos del Recinto:		
	8.1 Argiak, orduko	8.1 Alumbrado, por hora	14,40	14,30
	8.2 Berokuntza, orduko	8.2 Calefacción, por hora	28,80	28,60

2.2.8. Postuak herriko jaietan eta ferietan

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei. Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

2.2.8. Puestos en ferias y festejos populares

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%. El anexo queda de la siguiente manera:

	POSTUAK HERRIKO JAIETAN ETA FERIE TAN	PUESTOS EN FERIAS Y FESTEJOS POPULARES	EUROAK 2015	EUROAK 2016
1.	Taberna, kafetegi eta antzerakoak	Bares, cafés y similares		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	8,80	8,75
2.	Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituak mahaiak:	Churrerías y chocolaterías y mesas de masa frita		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	8,80	8,75
3.	Pastelak, gozokiak, fruta sikuak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, etab. Saltzeko txosnak.	Casetas de venta de pasteles, caramelos, dulces, frutos secos, patatas fritas, bisutería. Juguetes, libros etc.		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	6,15	6,10
4.	Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak	Puestos de venta de artículos festivos de todo tipo		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por metro lineal y día	19,10	19,00
5.	Tiro txosnak eta antzeko jokoak.	Casetas de tiro al blanco, anillas y juegos varios		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	3,65	3,60
6.	Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak	Tómbolas, rifas, vetas rápidas y similares		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	8,80	8,75
7.	Zabuak, tresna hegalaria, kaletak zaldiko-maldikoak, bunnerrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparatuak	Columpios, aparatos voladores, calesitas, juegos de caballitos, bumpers y, en general, cualquier clase de aparatos de movimiento		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	4,80	4,75
8.	Auto-txoke pistak	Pistas de autos de choque		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	2,45	2,45
9.	Ikuskizun eta antzerkiak.	Espectáculos y teatros		
	m ² edo zatikia, eguneko	Por m ² o fracción y día	2,45	2,45
10.	Zirkoak	Circos		
	Berrehun ikusle baino gutxiagoko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko	Por día de actuación, con un aforo inferior a doscientos espectadores	267,70	265,85
	Berrehun eta bostehun ikusle bitarteko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko	Por día de actuación, con un aforo entre doscientos y quinientos espectadores	411,10	408,80
	Bostehun ikusle baino gehiagoko edukiera, emanaldi egun bakoitzeko	Por día de actuación, con un aforo superior a quinientos espectadores	672,20	667,50

2.2.9. Kultur Etxea eta Udalaren beste zenbait higiezin

2.2.9. Casa de Cultura y otros inmuebles municipales

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

	KULTUR ETXE ETA UDALEKO BESTE ZENBAIT HIGIEZIN	CASA DE CULTURA Y OTROS INMUEBLES MUNICIPALES	EURO / Eguneko 2015	EURO / Eguneko 2016
1.	ERABILERA OROKORRA	USO GENERAL		
	1.1 Kultur Etxeko Areto Nagusiaren erabilera	1.1 Utilización de la Sala Principal de la Casa de Cultura	144,45	143,45
	1.2 Kultur Etxeko 1, 2 eta 3 bilera aretoak eta Topagune aretoa	1.2 Salas de Reunión 1, 2 y 3 de la Casa de Cultura y la sala Topagune	88,85	88,25
	1.3 Kultur Etxeko 4 eta 5 bilera aretoak	1.3 Salas de Reunion 4 y 5 de la Casa de Cultura	71,05	70,55
	1.4 Auditorioa	1.4 Auditorio	144,45	143,45
	5. Leidor aretoa	1.5. Leidor aretoa		
	1.5.1. Egun erdia (geh. 5 ordu)	1.5.1 Media jornada (máx 5h)	545,05	541,25
	1.5.2 Egun osoa (geh. 10 ordu)	1.5.2 Jornada entera (máx 10h)	1.090,20	1.082,55

2.2.10. Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan

2.2.10. Estacionamiento limitado de vehículos en la vía pública

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei. Ondorioz, hauek izango dira tarifak:

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%. El anexo queda de la siguiente manera:

IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUA BIDE PUBLIKOAN	ESTACIONAMIENTO LIMITADO DE VEHICULOS EN LA VIA PUBLICA	EUROAK 2015	EUROAK 2016
30 minutu baino gutxiago, minutuko	Menos de 30 minutos, por minuto	0,01	0,01
Gune txuria. Gehenez 20 minutu	Zona blanca. Máximo 20 minutos	0,20	0,20
ALDE MARROIA	SECTOR MARRON		
30 minutu	30 minutos	0,40	0,40
Ordu bat	La primera hora de estacionamiento	0,90	0,90
Ordu eta erdi	Por hora y media de estacionamiento	1,35	1,35
Bi ordu	Por dos horas de estacionamiento	1,95	1,95
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,20	11,00
ALDE URDINA	SECTOR AZUL		
30 minutu	30 minutos	0,40	0,40
Ordu bat	La primera hora de estacionamiento	0,90	0,90
Ordu eta erdi	Por hora y media de estacionamiento	1,35	1,35
Bi ordu	Por dos horas de estacionamiento	1,90	1,90
Hiru ordu	Por tres horas de estacionamiento	4,45	4,40
Lau ordu	Por cuatro horas de estacionamiento	7,70	7,60
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,05	11,00
ALDE BERDEA	SECTOR VERDE		
Goiza	Mañana	1,90	1,90
Arratsaldea	Tarde	1,90	1,90
Egun osoa	Día completo	3,90	3,90
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,05	11,00
BERTAKOENTZAKO APARKALEKUA	APARCAMIENTO PARA RESIDENTES		
Bertakoen txartela, € / urte	Tarjeta residentes, € / año	40,20	39,90
PARKIMETROAK	PARQUIMETROS		
Banakako parkimetroa, alokairuan	Parquímetro individual, en cesión de uso	200,00	198,00
Karga-txartela	Tarjeta de carga	11,05	11,00
Txartelaren karga	Carga de la tarjeta	30,00	30,00
Autokarabanentzako gunean aparkatzea eguneko	Estacionar en área de autocaravanas por día	1,00	1,00

2.2.12. HERRI BARATZA

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:
Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

UDAL BARATZA

IURRAMENDIKO BARATZEEN ERABILPENA	UDAL	USO DE HUERTOS MUNICIPALES DE IURREAMENDI	EUROAK 2015 urteko	EUROAK 2016
1.- Elbarriak		1.- Personas con minusvalía	60,30 €	59,90
2.- Langabetuak		2.- Personas desempleadas	60,30€	59,90
3.- Beste erabiltzaileak		3.- Personas usuarias en general	120,60 €	119,75
4.- Elkarteak		4.- Asociaciones	180,90 €	179,65

3. PREZIO PUBLIKOAK

3.1. Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza fiskala

3.1. Ordenanza fiscal reguladora de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades.

3.1.1. Zenbait udal zerbitzu

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

3.1.1. Servicios varios municipales

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

OHIZKO OSOKO BILKURA
2015.10.27

	ZENBAIT UDAL ZERBITZU	SERVICIOS VARIOS	EUROAK 2015	EUROAK 2016
A)	MATERIALAK	MATERIALES		
	A.1 Hesi metalikoak; hesiko eta eguneko (3.40*2)	A.1 Vallas metalicas: por cada valla y día (3.40*2)	2,70	2,70
	A.2 Hesi metalikoak, hesiko eta eguneko (2*1)	A.2. Vallas metálicas, por cada valla y día (2*1)	2,70	2,70
	A.3 Taulatuak; m ² ko eta eguneko (2,5*3)	A.3 Tablados, por cada m ² y día (2,5*3)	9,10	9,05
	A.4. Mahaiak bi astorekin(2,50*080)	A.4. Mesas (2,50*0,80)	4,80	4,75
	A.5. Sukaldea, eguneko	A.5. Cocina, por unidad y día	4,25	4,20
	A.6. Buruhandiak, eguneko	A6. Cabezudos, por unidad y día	5,35	5,30
	A.7. Danborra, eguneko	A.7. Tambor, por unidad y día	5,35	5,30
	A.8. Kaičila, eguneko	A.8. Jaula, por unidad y día	1,60	1,60
	A.9. Panel txuriak, eguneko	A.9. Panel blanco, por día	2,16	2,14
	A.10 Aulkiak; aleko eta eguneko	A.10 Sillas, por unidad y día	0,40	0,40
	A.11. Karpa txikia, aleko eta eguneko	A.11. Carpa pequeña, por unidad y día	40,20	39,90
	A.12 Karpa handia, moduloko eta eguneko	A.12. Carpa grande, por módulo y día	62,20	61,75
	A.13. Eszenatokia	A.13 Escenario	207,45	206,00
B)	MAKINERIA ETA IBILGAILUAK	MAQUINARIA Y VEHICULOS		
	B.1 Kamioi saskiduna orduko edo zatikiko	B.1 Camión cesta, por hora o fracción	112,00	111,20
	B.2 Beste kamioiak orduko edo zatikiko	B.2 Otros camiones, por hora o fracción	96,60	95,90
	B.3 Makineria oro har (dumper,zanpatzeko makina, etab.).Udalarekin zehazteko.	B.3 Maquinaria en general (dumper, apisonadora, etc.). A convenir con la Administración Municipal.		
C)	PERTSONALA	PERSONAL		
	C.1 Gidaria, ordu bakoitza	C.1 Chófer, por cada hora	42,65	42,35
	C.2 Laguntzailea, ordu bakoitza	C.2 Peón, por cada hora	39,50	39,20

3.1.2. Udal garraio zerbitzua

-% 0,7 ko jeitsiera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.
Ondorioz, hauek izango dira tarifak:

3.1.2. Servicio de transporte municipal

Se dictamina aplicar a las tarifas la disminución general del - 0,7%.
El anexo queda de la siguiente manera:

	UDAL GARRAIO ZERBITZUA	SERVICIO DE TRANSPORTE MUNICIPAL	EUROAK 2015	EUROAK 2016
	Bidaiako txartela	Billete por viaje	0,70	0,70
	60 bidaiako bonoa (1)	Bono para 60 viajes (1)	19,60	19,45

Lore Agirre Zipitria, EHBILDUko zinegotzia irten da.

4. EHBILDUk Hassanna Aaliari elkartasuna adierazteko aurkeztutako mozioa.

4. Moción presentada por EHBILDU para manifestar la solidaridad en apoyo a Hassana Aalia.

Partehartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, EHBILDUko zinegotzia: *“Kasu hau orain 40 urte gertatukoaren ondorio da. Gogoratu, orain dela 40 urte, marrokok Sahara berreskuratzeko ibilaldi berdea antolatu zuen, zibilak eta militarrek bidalita Saharako mugetara nolabait Espainiako gobernuaren gainean, presio egiteko eta Espainiako gobernuak nola amore eman zuen eta oker ez banago azaroaren 9an Madrilén sinatu ziren hitzarmen batzuen bidez, tartean Franco hil zela, Espainiak eman zien lurraldea Marroko eta Mauritaniari. Horrek ekarri zuen gerra piztea fronte polisarioak okupatzaileak handik bidaltzeko. Kontua da, oraindik ere, legalki Espainia dela lurraldearen administratzaile koloniala eta berari dagokio deskolonizazio prozesua abiatzeko eta egia esa Gobernuan egon diren bi alderdiak uko egin diotela hor momentu honetan nolabait hori martxan jartzeari eta nolabait tolestu egin direla Marrokoen interesei. Nahiz eta oposizioan daudenak batzuk behintzat Sahararren herriaren autodeterminazio eskubidea ozen aldarrikatu izan duten. Orduan Hassanaren kasua egoera horren ondorioa da, Hassana da bere herriaren askatasunaren alde, bakearen bidez borrokan ari den gazte bat, preso egon dena eta torturatua izan dena eta orain, bizi osorako zigor baten aurrean egon daiteke eta zigor hori heriotz zigorra izan daiteke, Marrokoeko presondegiak dauden egoeran. Eta honetan ere, Espainiako gobernuak seguruenik Marrokoen presioari amen eginez, ginetik kendu nahi du auzia eta erberestatu, garbi dagoenean errefuxiatu estatuserako baldintza guztiak betezen dituela. Eta egia Hassana bera jasaten ari dela presioa eta probokazioa, bat hemen aipatzen dena, Burgosen gertatu zaiona. Baina, ni beste gertaera baten lekuko izan naiz, orain dela 10 egun, Gazteizen, Saharari buruzko herriaren inguruko jardunaldi batzuetan, Hassana hizketan ari zenean publikoan bertan bizpahiru marrokiar hasi zitzairen bullaka eta abar eta are gehiago, haietako batek Hassanaren aurkako salaketa jarri du, esanez eraso egin ziola Hassannak berak. Beraz, uste dut mozio une egokian datorrela, 40. urteurrenarena eta beste batetik, Hassanak irudikatzen duelako Sahara herriaren borroka autodeterminazio eskubiderako eta bere etorkizuna erabakitzeko. Horregatik alde bozkatuko dugu.”*

... Alkatea: *“Tolosan Saharataz hitz egiten badugu, errefuxiatu kanpamendua etortzen zaizkigu gogora, Tolosan dagoeneko ez dira arrotzak gainera. Oinarrizko beharrak asetzeko elikagaia biltzeko kanpaina, urtero egiten da eta udaran oporrak bakean egitasmoaren baitan haur saharatarrak izaten ditugu gure kaleetan. Baita ere Sahara komunitate bat bizi da. Kanpamentuetako bizi baldintzak oso gogorak dira eta azken egun hauetan gainera uholdeak izan dira, Media Luna Roja argazkiak oso ondo irudikatzen dute bizi duten egoeraren larritasuna. Hassanna Aaliaren egoera hori salatzeko Gazteizko lege biltzarrak gehiengo zabal haundi batekin onartu zuen adierazpenean non Madrilgo barne saiari eskatzen zion berraztertzeke babes eskaeraren uko egite hori. Bere bizitza arriskuan jartzen duelako, mozioan agertzen den bezala, eta Iñakik adierazi duen bezala eta baita Amnistia Internazionalak adierazi duenez Hassanari egindako epaiketak ez duelako gutxieneko bermerik. Beraz, guk mozioaren alde bozkatuko dugu.”*

Alkateak proposatzen du, Tolosaldea Saharako kideak eta hainbat saharatar bertaratu direnez haiei hitza ematea. Parte hartzea DVDan, plenoko espedientean jasoko da).

Idazkariak EHBILDU alderdiak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“HASSANNA AALIARI ELKARTASUNEZKO ADIERAZPENA

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoek, indarrean dagoen legeriaren babesean, bere eztabaidarako eta onespenerako hurrengo PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan. 2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa-beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatuko luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararren kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra zigorra ezartzen dio (errebeledian aitortuta).

Hainbat nazioarteko legelari prestigiotsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari(Genovako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Sahararra menderatze aldera eragiten duen bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Hassannaren abokatuek Auzitegi Nazionalean helegitea aurkeztu zuten eta onartua izan zen. Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten du. Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

2015eko urriaren 6an Burgosen atxilotu zuten. Ondoren zehapen-prozedura bat zabaldu zioten, bere abokatu Javier Canivellek 48 ordu baino gutxiagon errekurritu duena. Prozesu hau estatutik kanporatzeko proposamenean amai daiteke.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako

ERABAKIAK hartu ditu:

- 1. Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna adieraztea.*
- 2. Arbuiatu egiten du Hassanna Aalia giza eskubideen aldeko Saharar ekintzailea urriaren*

6an Burgosen atxilotu izana eta ondoren zabaldu den prozedura.

3. *Egiatzen du Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten duela. Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.*
4. *Barne Ministerioari eskatzen dio Hassanna Aaliak asilo politikorako duen eskubidea aitortu dezala, bere erabakia berriz aztertuz, nazioarteko babes-eskaera 12/2009 Legeak ezarritakoarekin bat onartuta. Izan ere, bere herrialdera itzuliz gero Marokoko agintari okupatzaileek gogor zigortuko dute eta ezin izango da presondegitik irten bizitza osoan, politikoki aktiboa eta nazioartean ezaguna izateagatik, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzeagatik.*
5. *Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.*
6. *Berretsi egiten ditu bere konpromisoa Saharar Herriarekin eta bere babesa ekimen politiko eta sozialen alde, konponbide justua eta behin betikoa lortzera bideratuta, NBEK adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatuz; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.*
7. *Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:*
 - a. *ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA*
Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid
 - b. *ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI*
La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid
 - c. *KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI*
Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid
 - d. *ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI*
Paseo de la Castellana, 5. 28046 –Madrid
 - e. *NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI*
245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017
 - f. *ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:*
Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid
 - g. *EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.*
Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas
 - h. *EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.*
Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas
 - i. *MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.*
c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

Mozioa bozketara jarri ondoren, Udaltzako, aho batez, **onartu da**.

5. Kaleratzeak Stop eta IRPH STOP plataformak aurkeztutako mozioa.

5. Moción presentada por la plataforma Kaleratzeak Stop Desahucios e IRPH STOP.

Partehartzeak ondorengoak izan dira:

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDU alderdiko zinegotzia: *“Egia esan harrituta gelditu naiz mozio alternatiboa sartu izanarekin gaur eguardian emailez jaso dugu eta arratsaldean paperean, harrigarria iruditzen zait. Hiru urte badira udalean sartu zenutela, eta konturatu nintzen gauza asko eta asko Udala jada burutzen ari zela, 2012an egon zirelako zenbait harreman izan genituelako Stop kaleratzearen desjabetze inguruko taldearekin, zuekin, eta hor martxan jarri ziren zenbait mozio batzuk onartu ziren eta zenbait puntu jada lanketa hau emanak ziren. Eta zentzu horretan azkenengo legealdian, ni alkate eta hemen dauden hautetsiak hautetsi zirela eta udal gobernua osatzen genuenean aurre egin nien Tolosan eman ziren zenbat desjabetze. Nola?mozio honetan planteatzen den bitartekaritza lan hori egiten, banketxeekin harremanetan jartzen eta pertsona bat izendatzen koordinazio hori bermatzeko eta azken finean, beraiek jakinaren gainean zeuden, herritarrek etortzen zaizkielako, desjabetze prozesuan zeudelako, gurekin jartzen ziren harremanetan eta horren bidez lortu genuen martxan zeuden zenbait desjabetze gelditzea eta drama guzti hori tokatzen zaien familie sahiestea. Ondorioz,hemen planteatzen diren puntu asko, jada onartuak ditu Udal honek eta egiten den alde da pixktat egituratu. Stop Desahucioak aurkeztutakoan, ordea, kaleratzerik gabeko herria izendatzea planteatzen da. Gu horrekin erabat ados gaude, iruditzen zaigu etxebizitza eskubide bat dela. Eta gainera, Eusko Jaurilaritza eta Lege Biltzarrean ere etxebizitzaren legea eztabaidatu denean eta onartu izan denean berretsi dugu eta onartu azkenean eskubide subjeto izendatzea etxebizitza izatea eta zentzu horretan EAJK, esan beharra dago, aurka bozkatu duzuela, iruditzen zaizuelako diru xauketa bat dela, eta gu horrekin ez gaude batere ados, bertan esanda eta hemen berresten dugu, eskubide bat dela. Zenbat gauza xauketa izan daitezke, AHTa tarteko, baina ez hau. Drama bat da desjabetze bat, drama bat da norberari etxetik bidaltzea eta kale gorrian gelditzea eta administrazio publikoak bere obligazioa dauka eta administrazio lokalak ere, bitartekaritza hori eskaini eta horrelako drama egoera bat sahiesteko behar diren gauzak egiteko. Orduan, ez dugu ulertzen nola planteatu duzuen mozio alternatibo bat, mozio farrogosoa iruditzen zait erabat, Europar Batasunari eta Espaniar gobernuari egiten zaskio eskaerak, baina norberak ez du asumitzen izan ditzazkeen konpetentzia eta eskaini dezaken laguntza, hartzen duzuen konpromiso bakarra, etxebizitza hutsen inbentarioa egitea eta hori egina dago, IBlaren errekarguaren bidez badugulako zenbat etxe hutsa dauden, etxebizitza huts horiek merkaturatzeko programa badagoelako eta egoera txarrean dauden etxebizitzak konpontzeko eta udalak kudeatzeko beste programa badagoelako.*

Beraz, konpromiso hori hartzen duzue martxan dagoenean eta iruditzen zait mozioa oso hanka motz gelditzen dela eta azken finean ez diola jende askok dituen beharrei erantzuten eta pena eta zer pentsa ematen digu azken finean, Stop Desahuciosek planteatutakoarekin ez bazaudete ados zer esan nahi du: orain arte udalak egiten zituen bitartekaritza lanak, bankuekin hitz egitea, Udalak egiteari utzi behar diola? Eta jarraitu behar baduzue zerbitzu horiek edo laguntza hori eskaintzen, ez dut ulertzen zergatik ez zaudeten Stop Kaleratzeak aurkeztu duen mozioa onartzeko prest. Beraz, galdetu nahi nioke udal gobernuari,zein den asmoa: orain arte egindako bitartekaritza lan hori uztea? eta jarraitu behar baduzue eskaintzen, orduan zergatik ez zaudete mozio honekin ados?. Eskatzen den gauza berri bakarra kaleratzerik gabeko herrien zerrenda hortan sartzea zer bestela, hemen planteatzen diren 2, 3 edo 4, 5, 6 eta 8 puntuak 7a ez, Gazteitik Legebiltzarrari eskatu

beharko zitzaiolako etxebizitza publikoen parkeari dagokionean, baina 1. eta 7 puntuak, ez beste guztiak betetzen dira, ez dut ulertzen jarraitu behar baldin baduzue laguntza hori eskaintzen, zergatik ez duzuen onartzen Stop Kaleratzeak aurkezten duen mozioa. Beraz, guk aurkezten den mozioarekin, kolaborazioarekin ados gaude, uste dugu drama bat dela kaleratze bat bera eta udal administrazioak egin beharreko guztiak egin behar dituela horrelakoak sahiesteko eta uste dugu hori ondo definitzen duela Stop Desahuciosek aurkeztutako mozioak, ez udal gobernua aurkeztuen duenak.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNVko alderdiko zinegotzia: *“gu zuek egindako lana ez dugu ukatuko, baina gure mozioan adierazi nahi genuena, ardurak banatuta daudela eta udalak guzti honen aurrean arduraren zati txiki bat duela. Eta hori irudikatu nahi izan dugu gure mozioan. Zergatik, badagoelako estatuak jartzen duen legedi bat, exekuzio legedia. Hori ez du jartzen ez Eusko Jaurlaritzak, ezta Europako parlamentuak ere. Hemen dugu hori aldarrikatzeko gunea, zeren miseria eta drama horrek ekarri du, eta orduan hori nahi dugu isladatzea, beste mozioan ez dagoena. Eta bestetik, guk eskatzen dugu Europako legediaren transposizioa egitea hemengo legeetara. Horrela, bermatuko litzake orain gertatzen ari diren arazo larri hauek ez gertatzea eta hori nahi dugu gure mozioan isladatzea. Gero baita ere, kaleratzerik gabeko herri izendatze horrek guk dauzkagun eskumenak ikusita, gerta liteke gure borondatea hori izatea eta ezin gauzatu ahal izatea. Guk bitartekaritza lana egin dezakegu, inbentarioa egin dezakegu etxebizitza hutsena, ditugun etxebizitza hutsek eskaini ditzazkegu fede onez zordunak direnei, baina hortik aurrera dauden baldintzak, inposizioak, estatuak jarritakoak dira. Bitartekaritza lana egiten denean, alde batek amore eman nahi ez badu, ahaleginak egin behar dira, baina udalak duen ardura oso mugatua da. Eta horregatik gure mozioan planteatzen dugu, alde batetik, estatuen karga dago hemen, legea aldatu egin behar du, eta Eusko Jaurlaritzari bere ardura jartzen diogu, berak arautzen baitu etxebizitza politika. Udalak ere, badu bere ardura, baina Eusko Jaurlaritzak legedia dauka eta indarra eta bitartekoak ere handiagoak ditu. Eta azkenik, esaten dugu gure esku dauden baliabideak jarriko ditugula sortzen diren arazoak ekiditeko. Eta beste kontu batzuk ere ezin ditugu ukatu ere, udaltzaingoak gaur duen egoera: polizi judiziala da, gustatu edo ez gustatu, hori horrela da eta hori ezin dugu guk aldatu. Horregatik, planteatzen dugu beste mozioa. Orain arte egin den lanari guk ez diogu uko egingo.”*

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUko zinegotzia: *“pozten naiz orain arte egindako lanarekin jarraitzeko asmoa agertzea. . Baina bitartekaritza planteatzen denean saiakera irmo bat egitea nahi da udalaren aldetik. Hala ere, nire esperientzitik hitzeginda esaten dizuet udalak bitartekaritza egin duen kasu guztietan lortu duela etxegabetzea saiestea, lortu da bankuekin hitz egin da eta gero, alokairu sozialaren bitartez etxetikan ez alde egitea. Lortu dira desjabetzeak etetea edo kaleratzeak. Udaltzaingoaren inguruan esandakoarekin ez nago guztiz ados, Tolosan Ertzaintzak ere lan hori egiteko aukera duelako eta Udaltzaingoak ere ezezkoa emateko aukera baduelako. Badaude zenbait herri hori egin dutenak eta ez da ezer gertatzen. Zentzu horretan eta berresten naiz, ados bazaude, Stop kaleratzeak planteatzen duen mozio hortako puntu guztiekin bi mozioekin bat egitea, eta ez beste bat planteatzea, ez alboratzea Stop Desahuciosena. Usten baduzue instantzi haundiagoetara joan behar dela, biak bat egitea izan daiteke hoberena, bestela dirudielako Stop kaleratzeak eskatzen dituen konpromisoak, konpromiso subjektiboak direnak, Udalak hartu behar dituen konpromisoak alboratzen dituzutela. Ez dut eragozpenik ikusten biekin bat egitea. Berrestea Stop desjabetzeak egiten duen mozioa. Biak barneratzea mozio batean. Azken finean, argi gelditzen da eskatzen den kaleratze gabeko herri izendatzea deklarazioa bat dela, udalak ahalegin guztiak egingo dituela, jakinda beti ere posible ez dela izango. Ematen du zuenak bestea anulatzen duela. Inportantea iruditzen zait, Stop kaleratzeak sartu dituen puntu horiek udalak bereak egitea.”*

... Alkateak hitza eman die Stop kaleratzeak plataformako kideei. Partehartzea DVDn jasota dago, espedientean.

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUKo zientgotziak, proposatzen du biekin mozioa bat egitea.

... Alkateak: *“uste dut, Jokin Akue zinegotziak, oso ondo adierazi duela eta Kaleratzeak Stopeko kideekin elkartu nintzen, pleno aurretik, azaltzeko zein puntutan ikusten genituen gure zalantzak, mozioa aurkeztu zen bezala onartzeko. Hemen, batetik eskumenak nahastuta daude, Udaltzaingoaren kontua ere hor dago. Gure mozioan saiatu gara gure eskumenari dagokion instituzioei zuzentzen eta Udaltzaingoaren puntua kentzen. Bere horretan, bi mozioak aurkeztu dira, iritziak eman dira eta bozketara pasako gara.”*

Idazkariak KALERATZEAK STOP eta IRPH STOP plataformak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Hitzez hitz honela dio:

“Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusiek zein Espainiako Konstituzioak etxebizitza eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri gisa arautzen dute. Hortaz, eskubide honen sustapenak materia honen gainean eskumenak dituzten botere publiko guztien jarduera positiboa eskatzen du, hauen artean Tokiko Administrazioarena ere.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio larrietako bat familia askok euren ohizko etxebizitzaren mailegu hipotekakoaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzek bizi duten ezintasuna da. Egoera honek, etxebizitzaren galera ez ezik, langabeziak eragindako gainontzeko ondorio tamalgarriak dakartza kasu askotan berarekin.

Tokiko Administrazioek ezin dute honen aurrean geldirik egon. Hiritarroi babesa eskeini eta etxebizitza eskubidea modu eragikorrean bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu behar dituzte. Kasu askotan, gainera, botere publikoek finantza erakundeen eta hiritarron harremanetan gero eta nabarmenagoa den desoreka berdintzeko lan egin beharko dute, halaber.

Horregatik, udalek ohizko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familiak babesteko programak abian jarri beharko dituzte, aholkularitza eta bitartekaritza indartuz eta, betiere, KALERTZEAK SOPT DESAHUCIOS bezalako plataformekin elkarlanean.

Udalek, herritarrongandik gertuen dauden administrazioak direlako eta euren arazo, behar behar eta eskakizunak ezagutzen dituztelako, langabeziak estututa edo eurek sortu ez duten kristi ekonomikoak ordainezinak bilakatu dituen hipotekei aurre egin ezin dietelako, egoera kezkarria bizi diren milak familien egoera zuzentzeko bebearra dute.

*Honengatik, eta udal honean ordezkariak duten alderdi poitko eta hauteskunde-koalizioek sinatu duten **KALERATZEEN, POBREZIAREN ETA DESBERDINTASUN SOZIALEN KONTRAKO DEKALAGOAREN** 10. puntua bte dadin nahi dugulako, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS plataformak ondorengo mozioa aurkeztu du osoko bilkuran ezбайдatua eta onartua izan dadin.*

MOZIOA:

1. Udaletxe honek **“Kaleratzerik Gabeko Herri”** deklaratzeko du udalerrri hau
2. Udaletxe honek beharrezkoak diren baldintzak eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen

- etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.*
3. *Udaletxe honek etxegabetzeak saihesteko jarduera guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Kaleratzeak Stop Desahuciosekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.*
 4. *Udaletxe honek udalerrri honetan jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu zerbitzura jar ditzaten exijitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egiteari uztea.*
 5. *Udaletxe honek, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero, irtenaraztean udaltzaingoak komisio judizialari laguntza eman diezaion ekidingo du, kaltetutako pertsonak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udaletxeak beharrezko neurriak hartuko ditu kaltetuako pertsonen arrazoizko prezioak alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko*
 6. *Udaletxe honek kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaizoten galdegingo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuan dauden kolektibo sozialak identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskaini ahal izateko.*
 7. *Udaletxe honek, Alokabidek kudeatzen duen Etxebizitza Publikoen Parkeari dagokionean, LAKUAKO GOBERNUARI beharrezkoa diren erabaki eta mofifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, GAZTEIZKO LEGIBILTZARRAK pasa den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inkilinoiei buruz hartutako akordioa betearazteko.*
 8. *Udaletxe honen titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezzen beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea sahistu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketa; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu”.*

Jarraian, EAJ-PNV alderdiak aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurri da: Honela dio:

“Tolosako udalak Espainiako gobernuari eskatzen dio egin ditzala beharrezko arau aldaketak hipotekarako mailegu-kontratuei eta exekuzio hipotekarioaren prozedurei eragiten dien legerian, Europar Batasunaren eremuan ezarritako bermeekin homologatzeko moduko herritarrentzako benetako babesa bermatzeko.

Tolosako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio benetan ken dezala 2013ko erreformak kontsumitzaileei etxegabetzeetan eragindako larriagotze prozesala, erreforma hori argi eta garbi berdintasun prozesaleko printzipioaren eta europar batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren aurkako da eta.

Tolosako Udalak Espainiako gobernuari eskatzen dio egin dezala kontsumitzaileekin egindako

kontratuetako abusuzko kalusulei buruzko Kontseilauren 93/13 direktibaren egiazko iraulketa Europar batasuneko Justizia Auzitegiaren 2014ko uztailaren 17ko epaian azladutako terminoen zabaltasun guztian.

Tolosako Udalak Espainiako gobernuari eskatzen dio iraul dezala, ahalik eta lasterren, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/17/EB Direktiba, 2014ko otsailaren 4koa, bizitegiatarako ondasun higiezinatarako kontsumitzailekin egindako kreditu-kontratuei buruzkoa, eta zinaren miedioz aldatzen baitira 2008/48/EE eta 2013/36/EB direktibak, segurtatuz Europako araua Espainiako legeriara iraultze hori Europako testuaren izpiritu bermazalearekin leialki egiten dela.

Tolosako Udalak exijitzen du finantza erakundeek fede oneko zordunen etxegabetzeak aldi baterako etetea, eta Eusko Jaurlaritzak, finantza erakundeen jarrera eta etxegabetzeen aurrean hartzen ditzuten erabikien arabera, bakoitzarekin daukan ekonomia, erakunde eta lankidetzarako harremanak, berraztertzeke.

Tolosako udalak Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio, bizitegiatarako dituen baliabideak ahalbideratzeko horrela, ohizko etxebizitzatik etxegabetuak izan diren familien beharrei erantzuteko, alokairu sozialeko etxebizitza egitasmoan sartzeko lehentasuna emanez.

Udaletxe honek, titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezkeen beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak azertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketa; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.”

Bozketara jarri ondoren, Udalbatzak, EAJ-PNV (9)alderdiko aldeko botoekin eta EHBILDU alderdiko kontrako (7), gehiengoz, mozioa **onartu da**.

6. Galderak eta eskaerak.

6. Ruegos y preguntas.

... Iñaki Irazalbabeitia Fernandez (EHBILDU), eskatzen du Saharako kanpamenduan gertatu diren uholdeen aurrean Udalak aztertzea Euskal Fondoaren bitartez dirua bideratzea toki horien berrikuntzarako eta laguntzeko.

... Alkateak: "Iarritasun egoerak asko izaten dira, aurtengo laguntza Tibetera bideratu da, baina hala eta guztiz ere, aztertuko da.

... Peio Etxabe Zabalak (EHBILDU) galdetzen du Kirol instalazioen arduradunaren jubilazioa aurki burutuko dela eta gaia aztertu den ala ez. Alkateak erantzun dio batzordean tratatuko dela.

... Onintza Lasa Arteagak (EHBILDU), Osasun Zerbitzuaren inguruan galdetzen du, hitzarmena azaroan bukatzen denez, zerbait honen inguruan harremanak badauden, asmoak, zer berri

dauden.

... Alkateak, Gizarte Zerbitzuetako batzordean hitz egingo dela adierazi du, informazioa emango dela.

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU), azkeneko plenoan kalean dauden edukiontzitaz galdetu genuen eta esan ziguten erantzuna batzordean jasoko genuela. Patxi Amantegi Zubiriak erantzun dio esanez, harek ez zuela galdetu eta berari pasa egin zitzaiola erantzutea. Hala ere, erantzun dio edukiontzi horiek ostoa jasotzeko erabiltzen dituztela garbiketakoek.

Besterik gabe, gaueko 21:05ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:05 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA